

ZERGEN ARLOKO ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUDIA

97/2008 Foru Dekretua, azaroaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez Zergen Arloko Arau Hausteen eta Zehapenen Araudia onartu da. (ALHAO, 140. zk., 08-12-5ekoa)

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra onartzeak Arabako zergen arloko araudi orokorra berritu eta eguneratu du, eta ondorioz Aldundiaren egituraren aldaketa garrantzitsua egin da zergen arloko arau hausteen eta zehapenen tratamendurako.

Zehapen araubide berria aurreko Foru Arau Orokorrekoa baino zabalagoa eta konplexuagoa da, eta lehenago arau garapenerako uzten ziren alderdiak arautzen ditu. Hori gorabehera, Foru Arau berrian gai batzuk hurrengo batean arautzeko utzi dira, eta horixe da, hain zuzen ere, araudi honen helburua.

Lehenbizi, argi utzi behar da zehapenaren eta zerga zorraren kontzeptuen arteko bereizketa. Horrez gainera, Zergei buruzko Foru Arau Orokor berrian zergen arloko arau haustek ez sailkatzea hautatu da: tipifikatu egin dira eta bakoitzari dagokion zehapena ezarri da.

Horren bitartez sistema erraztu da, eta gainera zehapenak mailakatzeko irizpideak ezarri dira; lau baizik ez dira: zergen arloko arauak behin eta berriro haustea, datuak ezkutatzea, iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jardutea, eta interesdunak laguntza berezia ematea.

Beste alde batetik, Herri Ogasunaren aurkako delitua egin delako zantzuak antzematen diren espedienteetarako prozedura egokia ezartzea garrantzitsua denez gero, zergak aplikatu behar dituzten organoek jarraitu beharreko prozedura arautu da.

Halaber, zergen arloko zehapenak barkatzeko izapideak zehaztu dira.

Azkenik, Araudia indarrean jarri aurretik hasi eta burutu gabe dauden prozeduretan aplikatuko den araubide iragankorra ezarri da, beti ere kontuan izanik atzeraeraginaren printzipioa aplikatuko dela zehapen araubide onuragarrienean.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honi buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Araudi honek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean (hemendik aurrera Zergei buruzko Foru Arau Orokorra), hain zuzen ere IV. tituluari, zehatzeko ahala erabiltzeaz ezarritakoa osatu eta garatu du.

Gainera, berariazko xedapenik egon ezean, araudi honetan xedatutakoa aplikatuko da zergei buruzko foru arauetan ezarritako zerga zehapenetan.

2. Foru Aldundiak Estatu osoan baliarazi ahal izango ditu zergak zehapenak ezartzeko eskumenak, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoari lotuta.

3. Araudi hau Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik aplikatuko da.

2. artikulua. Borondatezko erregularizazioa zehapenen arloan.

1. Zergapeko batek, Zerga Administrazioak eskatu gabe, bere zerga egoera erregularizatzen badu edo oker aurkeztutako aitortzen, autolikidazio edo eskabideren bat zuzentzen badu bere borondatez, ez du edukiko inolako erantzukizunik hura aurkeztean egindako zergen arloko arau hausteengatik.

Borondatezko erregularizaziotzat hartuko dira zerga betebeharrak bat betetzeko errekerimendua jaso edo zehapen prozedura bat egiaztatze edo ikertzeko prozedura bati ekingo zaiola jakinarazi baino lehen egiten diren guztiak. Honen ondorioetarako, jakinarazpentzat hartuko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 27. artikuluko 1. idatz zatian aipatutakoa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoak ez du eragotziko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 27. artikuluan ezarritakoa, ez eta aitortzen, autolikidazio edo eskabideak berandu edo oker aurkezteagatik egiten diren arau hausteak ere.

3. Baldin eta zergapekoak artikuluko honetako 1. idatz zatian aipatutako jakinarazpena jaso ondoren sarreraren bat egiten badu, erregularizazioaren kontura izango da, halakorik eginez gero, eta ez du eragotziko erregularizazioaren ondoriozko zerga zorraren eta jakinarazpena jaso baino lehen egindako sarreraren arteko diferentziagatik bidezko zehapena ezartzea.

3. artikulua. Hainbat zerga zehapen batean biltzea.

Zergak kudeatzeko prozedura batean (balioak egiaztatze prozeduratan izan ezik) edo ikuskatze prozedura batean zergaldi edo likidazioaldi batzuk egiaztatzen badira, prozeduraren xede den zerga eta aldi bakoitzeko, eta foru arauetan tipifikatutako arau hausteko kasu bakoitzeko, arau hauste bat egin dela pentsatuko da zehapenei dagokienez.

Zergaldirik ez likidazioaldirik ez duten zergei edo aldizka aitortzen ez diren egitate edo eragiketei dagozkien arau hausteetan, arau hauste bat hartuko da kontuan zergapeko egitate edo eragiketa bakoitzaren ondoriozko zerga betebeharrak bakoitzeko.

Betebeharrak ez betetzeagatik arau hausteetan, arau hauste bat gertatuko da betebeharrak bat betetzen ez den bakoitzeko.

II. TITULUA

DIRU ZEHAPENAK EZARTZEA

I. KAPITULUA

ZEHAPENAK MAILAKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ZEHAPENAK MURRIZTEA

4. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideen aplikazioa.

1. Zehapenak mailakatzeko irizpideak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 191. artikuluan ezarri dira. Irizpide horietako bakoitza zerga kuotaren edo Foru Arau Orokorreko 189. artikuluko 2. idatz zatian aipatutako isunaren zati egokiari aplikatuko zaio.

2. Datuak ezkutatzek, liburuak edo erregistroak gaizki artezteak edo dokumentu edo euskarri faltsutuak aurkezteak izan duen eragina kalkulatzeko gehikuntza batzuk kontuan hartzeak ez du eragotziko zenbateko horiek berak, bidezkoa izanez gero, kontuan edukitzea zehapenaren mailakatzear eragina duten beste inguruabar batzuen garrantziaren kalkuluan.

3. Kapitulu honetan jasotako mailakatzeko irizpideak aplikatzeko, zerga zorra zer den Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 57. artikuluko 1. idatz zatian finkatu da.

5. artikulua. Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

1. Zehapenak mailakatzear, ondokoa gertatu behar da zergen arloko arauak behin eta berriro hautsitzat jotzeko: zergen arloko arau hauste batengatik ezarritako zehapena administrazio bidean irmo bihurtu eta ondoko lau urteetan pertsona berak izaera bereko arau haustea egitea.

Honen ondorioetarako, izaera berekotzat hartuko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko IV. tituluko III. kapituluko artikuluko berean azaltzen diren arau hauste guztiak. Hala ere, foru arau horretako 195, 196 eta 197. artikuluetan ezarritako arau hauste guztiak izaera berekotzat hartuko dira.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetako arau hausteak behin eta berriro egiten badira, zehapena isun proportzionala izango da eta gutxieneko ehunekoari 10 puntu portzentual gehituko zaizkio aurretik ezarritako zehapen bakoitzeko (30 puntu portzentzual gehitu ahal izango da gehienez).

3. Isun finkoarekin zehatzen diren arau hausteak behin eta berriro gertatzen badira, gutxieneko zehapena % 100 gehituko da aurretik ezarritako zehapen bakoitzeko, baina zehapenaren zenbatekoa ezin da izan aurrean aipatutako manuetan ezarritako gehienekoa baino gehiago eta zenbatekoa ezin da gehitu % 300 baino gehiago.

4. Mailakatzeko irizpide honen ondoretarako ez beste ezertarako, egiaztapen eta ikerketa jarduketaren baten ondoriozko izaera bereko arau hauste guztiak aurrekari bakarrera bilduko dira. Jarduketaren hasiera edo luzapena jakinaraztean oinarrituta egiten diren jarduketak egiaztapen eta ikerketa jarduketak bakartzat hartuko dira.

6. artikulua. Datuak ezkutatzea.

1. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da aitorpenik aurkezten ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten aitorpenak aurkezten direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta den aitorpenak, baldin eta datuak ezkutatzek zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren % 10 baino gehiago bada.

Zerga Administrazioak hirugarrenen aitorpenen bidez, informazio errekerimenduen bidez edo arau hauslearen kontabilitatea, liburuak edo erregistroak eta gainerako dokumentuak aztertuta eragiketen edo ezkutatu diren datuen berri jakin arren, datuak ezkutatzat joko dira.

Baldin eta arau hausleak bere aitorpenean zerga zorra kalkulatzeko behar diren datu guztiak adierazi baditu eta zerga zorraren murrizpena zergen arloko araudia gaizki aplikatzearen ondorioz gertatu bada, hori ez da datu ezkutatzetzat joko.

2. Halaber, araudi honetako 7. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran jasotakoa aplikatu behar denean ez da gertatuko datu ezkutatzerik, baldin eta aurkeztutako aitorpenean ageri diren akatsak kontabilitatea zorrotz islatu izanaren ondoriozkoak badira.

3. Isun proportzionala ezar dakiokkeen arau haustean datuak ezkutatu badira, zehapenaren gutxieneko ehunekoari 15 eta 50 puntu portzental bitartean gehituko zaizkio. Gehikuntza ezkutatzearen ondoriozko zorraren eta zehapenaren oinarriaren arteko proportzioaren arabera izango da, irizpide hauek aplikatuta:

- a) Ezkutatzearen ondoriozko zorra zehapenaren oinarriaren % 10 edo gutxiago bada, zehapenaren ehunekoa ez da gehituko.
- b) Ezkutatzearen ondoriozko zorra zehapenaren oinarriaren % 10, 20, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapenaren ehunekoari 15, 25, 35 edo 50 puntu portzental gehituko zaizkio, hurrenez hurren.
- c) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan tipifikatzen diren arau hausteei dagokienez, aurreko letran azaldutako erregelak aplikatuko dira zergaren likidazio egokiaren emaitzako zenbatekoaren eta aitortutako datuen arabera egingo zen likidazioaren emaitzakoaren arteko diferentziaren ehunekoaren arabera.
- d) Aitorpena edo autolikidazioa aurkezten ez bada, datuak ezkutatzearen ondoriozko zorra zehapenaren oinarriaren % 100 izango da.

4. Mailakatze irizpide hau Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan tipifikatutako arau hausteei aplikatuko zaie.

7. artikulua. Iruzurrez jardutea.

1. Iruzurrez jardutea izango da kontabilitatean eta zergen arloko araudian ezarritako liburuetan edo erregistroetan funtsezko gorabeherak egotea, bai eta faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzea ere.

2. Honen ondorioetarako, ondokoak gertatzea kontabilitateko funtsezko gorabehera izango da:

- a) Zerga araudian ezarritako kontabilitatea edo liburuak eta erregistroak arteztu beharra ez betetzea. Hau gertatuz gero, gutxienerako zehapenari 50 puntu portzentual gehituko zaizkio.
- b) Jarduera berari eta ekitaldi ekonomiko berari buruzko kontabilitate bat baino gehiago artezteak, enpresaren benetako egoera zein den jakiterik ez dagoela. Hau gertatuz gero, gutxienerako zehapenari 60 puntu portzentual gehituko zaizkio.
- c) Kontabilitate liburuak edo zerga araudian ezarritako liburuak edo erregistroak oker artezteak, esaterako, okerreko idazpenak, erregistroak edo zenbatekoak ezarrita edo konturen bat berezko xedearekin ez beste batekin erabilia.

Hau gertatzeko ezinbestekoa da agertu gabeko, oker agertutako edo berezkoa ez beste xede bateko kontu batean agertutako sarreraren, gastuen, aktiboaren edo pasiboaren zenbatekoa, konpentsazio aritmetikoa aplikatu gabe, zergaldian kontabilizatu edo erregistratutako sarrera edo gastu guztien % 15 izatea, gutxienez, edo arau haustea gertatzen den ekitaldiko azken balantzean ageri den guztirako aktiboaren edo pasiboaren % 5, kasuan kasukoa.

Aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa zergaldian kontabilizatu edo erregistratutako sarrera edo gastu guztien % 15 bada, gutxienez, zehapena isun proportzionala izango da eta beraren gutxienerako ehunekoa ondoko irizpideekin bat etorri behituko da.

Agertu gabeko, oker agertutako edo berezkoa ez beste xede bateko kontuetan agertutako karguen edo abonuen zenbatekoaren ehunekoa guztirakoan, goitik zein behetik	Zehapenaren gehikuntza (puntu portzentualak)
% 15 - 25 bitartean	25
% 25 baino gehiago - 50 bitartean	35
% 50 baino gehiago	45

Letra honetako lehenengo paragrafoan aipatutako zenbatekoa arau haustea gertatzen den ekitaldiko azken balantzean ageri den guztirako aktiboaren edo pasiboaren % 5 bada, zehapena isun proportzionala izango da eta beraren gutxienerako ehunekoa ondoko irizpideekin bat etorri behituko da.

Arau haustea gertatzen den ekitaldiko azken balantzean ageri den guztirako aktiboaren edo pasiboaren ehunekoa guztirakoan	Zehapenaren gehikuntza (puntu portzentualak)
% 5 - 15 bitartean	25
% 15 baino gehiago - 40 bitartean	35
% 40 baino gehiago	45

Aurrean azaldutako inguruabarrak gertatutzat joko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan araututako arau haustea egiteko beharrezkoak badira.

3. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabili direla pentsatuko da egin ez diren eragiketak agertzen badituzte, oso-osoa nahiz zati batean, eta arau haustea egiteko baliatu badira.

Horretarako ezinbestekoa da agiri edo euskarri faltsuen edo faltsutuen ondoriozko zenbatekoa zehapenaren oinarriaren % 10 baino gehiago izatea.

Hala gertatuz gero, zehapena isun proportzionala izango da eta beraren gutxieneko ehunekoa ondoko irizpideekin bat etorriz gehituko da.

Agiri edo euskarri faltsuen edo faltsutuen zenbatekoaren ehunekoa zehapenaren oinarrian	Zehapenaren gehikuntza (puntu portzentualak)
% 10 baino gehiago eta % 25 baino gutxiago	25
% 25 - 50 bitartean	45
% 50 baino gehiago	65

Aurrean azaldutako inguruabarrak gertatutzat joko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan araututako arau haustea egiteko beharrezkoak badira.

8. artikulua. Bitarteko pertsona edo erakunde baten bidez jardutea.

1. Arau haustea egiteko bitarteko pertsona edo erakunderen bat erabili dela pentsatuko da, baldin eta arau hausleak, bere nortasuna ezkutuan mantentzeko, ondasunen eta eskubideen titulartasuna, errenta edo ondare irabaziak lortzea edo ez betetzeagatik arau haustea ekarri duen zerga betebeharra sortzen duten eragiketak, zergen arloan eragina dutenak, egitea hirugarrenen izenean jarri baditu, haien baimenarekin zein halakorik gabe.

2. Hala gertatuz gero, zehapena isun proportzionala izango da eta beraren gutxieneko ehunekoa ondoko irizpideekin bat etorri gehituko da.

Bitarteko pertsona edo erakundea erabiltzearen zenbatekoaren ehunekoa zehapenaren oinarrian	Zehapenaren gehikuntza (puntu portzentualak)
% 25 arte	50
% 25 baino gehiago - 50 bitartean	60
% 50 baino gehiago	75

3. Aurrean azaldutako inguruabarrak gertatuzat joko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan araututako arau haustek egiteko beharrezkoak badira.

9. artikulua. Iruzurrez edo bitarteko pertsona nahiz erakunde baten bidez jardun denez zehazteko irizpidea aplikatzeko arauak.

1. Aurreko 7 eta 8. artikuluetan ezarritako inguruabarrak banan-banan aztertuko dira, eta bakoitzaren ondorioz zehapenaren ehunekoari aplikatu beharreko gehikuntza bereiz kalkulatu da.

2. Mailakatze irizpide honen arabera zehapenaren ehunekoari aplikatu beharreko gehikuntza kalkulatzeko aurreko idatz zatian aipatutako gehikuntzak batuko dira.

Baturaren ehunekoa 100 puntu portzentual baino gehiago bada, % 100eko gehikuntza aplikatuko da.

10. artikulua. Interesdunaren laguntza berezia ikuskatze jarduketetan.

1. Interesdunak ikuskatze jarduketetan laguntza berezia eman duela pentsatuko da, baldin eta jarduketa horietan bere kabuz ematen baditu Zerga Administrazioarentzat lortzen zailak diren datuak eta ondorioz zerga zorra gehitzen bada.

2. Zergen arloko arau hauste batean aurrean azaldutakoa gertatzen bada, zehapenaren gutxieneko ehunetik, hau da, laguntzaren ondorioz gehitutako zenbatekoari aplikatu beharrekotik, ondoren zehaztuko diren puntu portzentualak kenduko dira:

- 10 puntu portzentual, zenbatekoa ikuskatze jarduketan ondoriozko zerga zorraren % 20 edo gutxiago bada.
- 20 puntu portzentual, zenbatekoa ikuskatze jarduketan ondoriozko zerga zorraren % 20 baino gehiago baina % 50 baino gutxiago bada.
- 30 puntu portzentual, zenbatekoa ikuskatze jarduketan ondoriozko zerga zorraren % 50 edo gehiago bada.

11. artikulua. Zehapenak murriztea.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, foru arau horretako III. tituluko III. kapituluan araututako zergen kudeaketarako prozeduretan, zergapekoak ez badu aurkezten errekurtsorik, erreklamaziorik ez likidazioaren, ez zehapenen kontra, ados dagoela pentsatuko da, berariazko adostasuna beharrezkoa izan ezean.

Prozeduran zehar zergapekoak berariaz adierazten badu ados dagoela edo, zehapen prozeduran, ebazpena likidazioaren kontrako errekurtsua edo erreklamazioa aurkezteko epealdia amaitu baino lehen ematen bada halakorik aurkeztu gabe, zehapena murrizpena aplikatuta ezarriko da. Hala ere, geroago, zergapekoak likidazioaren edota zehapenaren kontrako errekurtsua edo erreklamazioa aurkezten badu, aplikatutako murrizpenaren zenbateko eskatu ahal izango da.

2. Ikuskatze prozeduretan, zehapenari murrizpena aplikatuko zaio zergapekoak adostasun akta (erregularizazioarekin eta zehapenarekin ados dagoela agertzen duen akta) sinatzen badu edo, alegazioen ondoko desadostasun aktan egindako erregularizazio proposamena aldatu ondoren, aldaketa gertatu eta egutegiko ondoko 15 egunetan zerga erregularizazioarekin eta zehapenarekin ados dagoela adierazten badu.

II. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ARAU HAUSTE ETA ZEHAPEN BATZUEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

1. ATALA

ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORREKO 195, 196 ETA 197. ARTIKULUETAKO ZEHAPENEN KALKULUA

12. artikulua. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetako arau hausteen zehapenen kalkulua.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195. artikuluan ezarritako arau haustearen zehapenaren oinarria erregularizazioaren ondorioz sartu beharreko kopurua izango da, hurrengo idatz zatiko kasuetan izan ezik.

2. Erregularizazioaren ondoriozko kopuruak zehapena ezar dakiekeen jokabideek eta halakorik ezarri ezin zaienek sortu badituzte, zehapenaren oinarria kalkulatzeko sartu beharreko kopurua ondoko 3. idatz zatian araututako koefizienteaz biderkatu behar da.

3. Aipatu koefizientea kalkulatzeko zatiketa hau egin behar da.

a) Zenbakitzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian erregularizatutako gehikuntza zehagarriak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa

proporzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan zuzenean egindako gehikuntza zehagarrien batura.

- b) Izendatzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian erregularizatutako gehikuntza guztiak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proporzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan zuzenean egindako gehikuntzen batura.

Koefiziente hau bi hamartarrekin biribilduta adierazi behar da.

4. Baldin eta erregularizazioan oinarria, kuota edo sartu beharreko kopurua doitu bada eta horren ondorioz zerga zorra txikitu bada, zenbateko hori ez da kontuan edukiko aurreko idatz zatian azaldutako koefizientea kalkulatzeko.

5. Hala ere, aurreko idatz zatietan xedatutakoa gorabehera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoa gertatzen den kasuetan, epealdi batean oker aitortutako kopuruek ez dute murriztuko zehapenaren oinarria erregularizazioan.

6. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196 eta 197. artikuluetan ezarritako arau hausteen zehapenen oinarria kalkulatzeko ere aurreko idatz zatietan xedatutakoa aplikatuko da, aipatzen diren sartu gabeko kopuruak ondokoak direla, hurrenez hurren:

- a) 196. artikuluko arau hausteetan, likidazioaren zenbatekoa, aitorpena aurkeztu ez bada, edo zergaren likidazio egokiaren eta aitortutako datuen bidez egindakoaren arteko diferentzia.
- b) 197. artikuluko arau hausteetan, arau haustearen ondorioz bidegabe itzulitako kopurua.

13. artikulua. Datu ezkutatzearen eraginaren kalkulua.

1. Datu ezkutatzearen ondoriozko zorra kalkulatzeko ondoko 2. idatz zatian araututako koefizientea aplikatu behar da, zehapenaren oinarria kontuan hartuta.

2. Aipatu koefizientea kalkulatzeko zatiketa hau egin behar da:

- a) Zenbakitzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian egindako gehikuntzetatik datuak ezkutatu direla antzeman zaienak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proporzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan egindako gehikuntzetatik datu ezkutatzea antzeman zaienen batura.
- b) Izendatzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian erregularizatutako gehikuntza zehagarri guztiak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proporzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan egindako gehikuntza zehagarrien batura.

Koefiziente hau bi hamartarrekin biribilduta adierazi behar da.

3. Baldin eta erregularizazioan oinarria, kuota edo sartu beharreko kopurua doitu bada eta horren ondorioz zerga zorra txikitu bada, zenbateko hori ez da kontuan edukiko aurreko idatz zatian azaldutako kalkuluak egiteko.

4. Datu ezkutatzearen eragina kalkulatzeko erregularizatutako zenbateko guztiak hartuko dira kontuan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan ezarritakoa aplikatzearen emaitza gorabehera.

5. Aitorpena edo autolikidazioa aurkezten ez bada, datuak ezkutatzearen ondoriozko zorra zehapenaren oinarriaren % 100 izango da.

14. artikulua. Faktura, frogagiri edo agiri faltsuak edo faltsutuak erabiltzearen eta bitarteko pertsona erabiltzearen ondoriozko zenbatekoaren kalkulua.

1. Agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak ezkutatzearen ondoriozko zenbatekoa kalkulatzeko ondoko 2. idatz zatian araututako koefizientea aplikatu behar da, zehapenaren oinarria kontuan hartuta.

2. Aipatu koefizientea kalkulatzeko zatiketa hau egin behar da:

a) Zenbakitzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian egindako gehikuntzetatik faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzeagatik erregularizatu direnak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proportzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan egindako gehikuntzetatik faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzeagatik erregularizatu direnen batura.

b) Izendatzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian erregularizatutako gehikuntza zehagarri guztiak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proportzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zerga kuotan edo sartu beharreko kopuruan egindako gehikuntza zehagarrien batura.

Koefiziente hau bi hamartarrekin biribilduta adierazi behar da.

3. Baldin eta erregularizazioan oinarria, kuota edo sartu beharreko kopurua doitu bada eta horren ondorioz zerga zorra txikitu bada, zenbateko hori ez da kontuan edukiko aurreko idatz zatian azaldutako kalkuluak egiteko.

4. Agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzearen eragina kalkulatzeko erregularizatutako zenbateko guztiak hartuko dira kontuan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan ezarritakoa aplikatzearen emaitza gorabehera.

5. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan ezarritako erregela berak aplikatuko dira bitarteko pertsonak edo erakundeak erabiltzeak zehapenaren oinarrian duen eragina zehazteko, araudi honetako 8. artikuluan araututako ehunekoa kalkulatzeko.

2. ATALA

ZERGEN ARLOKO BESTE ARAU HAUSTE ETA ZEHAPEN BATZUK ZEHAZTEKO ETA ZENBATEKOAK FINKATZEKO ARAU BEREZIAK

15. artikulua. Ageriko partida positiboak edo negatiboak zein zerga kredituak oker zehaztu edo egiaztatzeagatiko arau haustea.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 199. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatutako arau haustea foru arau bereko 195, 196 eta 197. artikuluetako arau hausteekin batera gertatzen bada, zehapenaren oinarria artikuluko honetako ondoko idatz zatietan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

2. Errenta garbia oker aitortu bada, % 10eko zehapen proportzionala ondoren azalduko den bezala kalkulatu behar den zehapen oinarriari aplikatuko zaio:

- a) Aplikatzeko egon diren kopuruak zergaren oinarrian soilik aplikatu badira, zehapenaren oinarria konpentsatu den errenta garbiaren gehikuntza zehagarria izango da.
- b) Aplikatzeko egon diren kopuruak zergaren kuotan edo sartu beharreko kopuruan soilik aplikatu badira, zehapenaren oinarria kalkulatzeko konpentsatu edo kuotan kendu diren kopuruak edo sartu beharreko kopurua ondoren zehaztuko den zatiketaren emaitzaz (bi hamartarrekin) biderkatuko dira; hona zatiketa.

1. Zenbakitzailean, oker aitortutako errenta garbi zehagarria.

2. Izendatzailean, erregularizatutako kuota osoaren eta hasieran aitortutako kuotaren arteko diferentzia.

- c) Aplikatzeko egon diren kopuruak zergaren oinarrian zein kuotan edo sartu beharreko kopuruan aplikatu badira, zehapenaren oinarria aurreko a) eta b) letretan ezarritakoaren emaitzako kopuruen batura izango da, hurrenkera horretan kalkulatu. Ixtean azaldutako zehapenaren oinarria eratzen duen errenta garbiaren gehikuntza zehagarria kalkulatzeko, lehenbizi errenta garbiaren gehikuntza zehagarriaren guztirako zenbatekotik zergaren oinarrian konpentsatzeko egon diren kopuruekin konpentsatutako zatia kendu behar da.

3. Oker aitortutakoa jasandako kuota, kendu beharreko kopurua edo kuota edo epealdiko zerga pizgarriak izan badira eta konpentsazioa zergaren kuotan edo sartu beharreko kopuruan soilik aplikatu bada, % 30eko isun proportzionala konpentsatutako kuota gehikuntza zehagarriari aplikatuko zaio.

4. Oker aitortu badira epealdiko errenta garbia eta kendu beharreko kopuruak edo zerga pizgarriak, zehapenaren oinarria honela kalkulatu behar da:

- a) Konpentsatzeko egon diren kopuruak zergaren kuotan edo sartu beharreko kopuruan soilik aplikatu badira, konpentsazioa modu proportzionalan egotzi behar zaie errenta garbiaren gehikuntza zehagarriari eta kuotan oker aitortutako kopuruei edo zerga pizgarriei, bakoitzari zehapenaren oinarrian dagokion zatia zehazteko.

Egozpenak koefizienteen arabera egingo dira, eta koefizienteak honela kalkulatu dira: 100ez biderkatu behar da erregularizatutako partiden ondoriozko zatiketaren emaitza, zenbakitzailea ondokoa dela (kasuan kasukoa):

1. Errenta garbiaren gehikuntza zehagarria zergaren karga tasaz biderkatzearen emaitza, baldin eta gehikuntza tasa proportzionala aplikatuta kargatutako oinarriaren zatian gertatu bada.
2. Errenta garbiaren gehikuntza zehagarria tarifaren arabera batez besteko karga tasaz biderkatzearen emaitza, baldin eta gehikuntza tarifa baten arabera kargatutako oinarriaren zatian gertatu bada.
3. Zergaren kuotan zuzenean egindako gehikuntza zehagarriak.

Kasu guztietan izendatzailea hauxe izan behar da: zerga oinarrian edo likidazio oinarrian erregularizatutako gehikuntza guztiak zergaren karga tasaz, gehikuntzak tasa proportzionala aplikatuta kargatzen den oinarriaren zatian gertatu badira, edo batez besteko karga tasaz, tarifa baten arabera kargatutako zatian gertatu badira, biderkatzearen emaitzako kopuruaren eta zergaren kuotan zuzenean egindako gehikuntzen batura.

Koefiziente hauek bi hamartarrekin biribilduta adierazi behar dira.

Egozpenak zehaztu ondoren, errenta garbiaren gehikuntzari dagozkion zehapenak artikuluko honetako 2.b) idatz zatian xedatutakoaren arabera ezarriko dira eta kuotan edo sartu beharreko kopuruan oker aitortutako kopuruei edo zerga pizgarriei dagozkien zehapenak 3. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

- b) Konpentsatzeko edo kentzeko egon diren kopuruak aplikatu badira zergaren oinarrian eta zergaren kuotan edo sartu beharreko kopuruan, lehenbizi 2. idatz zatiko a) letran ezarritakoa aplikatuko da eta gero 4. idatz zatiko a) letran ezarritakoa.

16. artikulua. Autolikidazioak edo aitortenak ezarritako epealdian ez aurkezteagatiko arau haustea, kalte ekonomik gertatzen ez denean.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 202. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatutako kasuetan ez da ezarriko zehapena autolikidazioa edo aitortena epealdiz kanpo aurkezteagatik, baina soilik epealdiaren barruan zuzen aurkeztutako datuei dagokienez. Hala ere, aipatu foru arauko 203. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, zehapena ezarri ahal izango da epealdiaz kanpo aurkeztutako autolikidazio edo aitortena gertatuz.

17. artikulua. Autolikidazioak edo aitortenak oker aurkeztuta, kalte ekonomik gertatzen ez denean, edo informazioa jasotzeko banako errekerimenduen erantzunak oker aurkeztuta gertatzen den arau haustea.

1. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorten xede diru kopuruei buruzko datuak soilik direnean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 203. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako lehenengo paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.
2. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorten xede diru kopuruei buruzko datuak soilik direnean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 203. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, eta zehapena honela

kalkulatuko da: aitortu gabeko edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketa guztien zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere aitortu gabeko edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoaren % 0,5, 1, 1,5 edo 2, hurrenez hurren (500 euro gutxienez). Ehunekoa % 10etik beherakoa bada, isun finkoa ezarriko da: 500 euro. Halaber, bidezkoa denean, hurrengo idatz zatiko b) eta c) letretan xedatutakoa aplikatuko da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran zehaztutako arau haustea behin eta berriro gertatuz gero, zehapena honela kalkulatuko da: aitortu gabeko edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketa guztien zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere aitortu gabeko edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoaren % 0,75, 1,25, 1,75 edo 2, hurrenez hurren. Ehunekoa % 10etik beherakoa bada, isun finkoa ezarriko da: 1.000 euro. Halaber, bidezkoa denean, hurrengo idatz zatiko b) eta c) letretan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitortpenen xede diru kopuruei buruzko datuak eta bestelakoak direnean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 203. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoa aplikatuko da, ondoko erregela hauen arabera:

- a) Diru kopuruei buruzkoak ez bestelako datuak oker badaude, edo ez badira zehatzak, edo faltsuak badira, zehapenaren oinarria datu haiekin lotutako diru kopuruei buruzko datuen guztirako zenbatekoa izango da. Pertsona edo erakunde bati lotutako halako datu bat baino gehiago egonez gero, zenbatekorik handiena izango da zehapenaren oinarria.
- b) Diru kopuruei buruzko datuak eta bestelako datuak oker badaude, edo ez badira zehatzak, edo faltsuak badira, zehapenaren oinarria erantzundako edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako edo aitortu beharreko datuaren zenbateko zuzenaren arteko diferentzia izango da (balio absolutua). Pertsona edo erakunde bati buruzko diru kopuru oker, zehaztugabe edo faltsu bat baino gehiago egonez gero, zehapenaren oinarria denen diferentzien batura izango da.
- c) Diru kopuruei buruzko datu oker, zehaztugabe eta faltsu guztiak pertsona edo erakunde berari badagozkio eta datuok elkarri lotuta badaude karga ehuneko edo tasa beraren aplikazioagatik, denei batera dagokien zehapenaren oinarria honela zehaztu behar da:

1. Datu oker, zehaztugabe edo faltsua karga ehuneko edo tasa aplikatzen zaion zenbatekoa bada, zehapenaren oinarria emandako edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako edo aitortu beharreko datuaren zenbateko zuzenaren arteko diferentzia izango da (balio absolutua). Datu oker, zehaztugabe edo faltsuak pertsona edo erakunde bati baino gehiagori badagozkie, zehapenaren oinarria denen diferentzien batura izango da.

2. Datu oker, zehaztugabe edo faltsua karga ehuneko edo tasa bada, zehapenaren oinarria karga ehuneko edo tasa aplikatuta aitortutako zenbatekoaren eta karga ehuneko edo tasa zuzena aplikatzearen emaitzako zenbatekoaren arteko diferentzia izango da (balio absolutua). Pertsona edo erakunde bati buruz karga ehuneko edo tasa oker, zehaztugabe edo faltsu bat baino gehiago agertuz gero, zehapenaren oinarria denen diferentzien batura izango da.

3. Datu oker, zehaztugabe edo faltsuak karga ehuneko edo tasa eta hau aplikatzen zaion zenbatekoa badira, zehapenaren oinarria emandako edo aitortutako zenbatekoen eta eman edo aitortu beharreko datuen arteko diferentzien batura izango da (balio absolutua).

4. Aurreko 3. idatz zatian ezarritako kasuetan, aplikatu beharreko isun proportzionala ondoko arteko erlazioaren arabera izango da: idatz zati horretan ezarritakoaren arabera zehaztutako zehapenaren oinarri osoa, batetik, eta bestetik eskatutako edo aitortu beharreko diru kopuruei buruzko datu guztien zenbateko zuzenak, edo, datuak elkarri lotuta badaude karga ehuneko edo tasa beraren aplikazioagatik, karga ehuneko edo tasa aplikatu zaien datuen zenbateko zuzenak.

5. Aurretik oker aurkeztutako aitorten eta autolikidazio bat zuzentzeko beste aitorten edo autolikidazio bat aurkezten bada norberaren borondatez eta errekerimendua jaso gabe eta aitorten edo autolikidazio berrian datu okerrak, zehaztugabeak edo faltsuak adierazten badira, zehapena ezarriko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 203. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, baina okerreko datu berriak soilik kontuan hartuta.

6. Ez da izango inolako erantzukizunik errekerimendu bati oker erantzuteagatik, baldin eta norberaren borondatez, eta beste errekerimendurik jaso gabe, lehen aurkeztutakoa zuzentzeko erantzun berria aurkezten bada.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, errekerimenduaren erantzun berrian okerreko datuak, datu zehaztugabeak edo faltsuak agertzen badira, zehapena ezarriko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 203. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, baina erantzun berrian oker aitortutako datuak soilik hartuko dira kontuan.

18. artikulua. Kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeagatiko arau haustea.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 205. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran ezarritakoaren arabera arau haustea bati beraren negozio kopuruaren % 1eko isun proportzionala ezarri behar bazaio kontabilitatea, zergen arloko arautegian ezarritako erregistro liburuak, haien euskarri diren programak, fitxategiak eta artxibo informatikoak eta kodetze sistemak erabili edo gorde ez direlako, ondoko erregela hauek aplikatu behar dira:

- a) Kontabilitatea arteztu ez bada: aipatu liburuak, programak, fitxategiak, artxiboak edo sistemak arteztu edo gorde ez diren ekitaldi ekonomikoan arau haustea egindako negozioen kopurua hartuko da kontuan.
- b) Zergen arloko arautan ezarritako liburuak edo erregistroak arteztu ez badira: aipatu liburuak, erregistroak, programak, fitxategiak, artxiboak edo sistemak arteztu edo gorde ez diren zergaldian edo likidazioaldian arau haustea egindako negozioen kopurua hartuko da kontuan.

2. Zerga bereziei buruzko arauak eskatutako liburu edo erregistroen kasuan, ondoko erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Arau haustea eragiketaren bat oker aipatzea edo ez aipatzea izan bada edo konturen bat berezko xedearekin ez beste batekin erabiltzea, eta idaztoharretan ez bada diru kopuruei buruzko daturik eman, zehapena ezartzeko liburuan edo erregistroan idatzi ez diren edo oker idatzi diren eragiketei dagozkien produktu fabrikatuen balioa hartuko da kontuan.

b) Arau haustea ez libururik ez erregistrorik ez artezteza ez erabiltzea izan bada, negozio kopurua kalkulatzeko arau haustearekin lotutako produktuak baizik ez dira kontuan hartuko.

3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 205. artikuluan ezarritako arau haustea dela eta (kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeagatiko arau haustea) ez da gertatuko administrazio erantzukizunik, baldin eta arau hausleari Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195 - 201 bitarteko artikuluetan ezarritako arau hausteetako batengatik zehapena ezarri behar bazaio, kontabilitate edo erregistro betebeharra ez betetzeari dagozkion eragiketen aitortpena edo autolikidazioa oker egin duela eta.

19. artikulua. Fakturazio edo dokumentazio betebeharrak ez betetzeagatiko arau haustea.

1. Betebeharra ez betetzea eragin duen eragiketaren zenbatekoa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo dena delako salmenta kargatzen duen zerga orokorraren ondorioetarako zehaztutako zerga oinarria izango da.

Fakturazio betebeharra faktura, frogagiri edo ordezko agiriren bat zuzentzean betetzen ez bada, isun proportzionala Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo fakturan, frogagirian edo ordezko agirian dokumentatutako eragiketa kargatzen duen salmenten gaineko zerga orokorraren zerga oinarriaren zenbatekoaren arabera izango da.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 206. artikuluan ezarritako arau haustea dela eta (fakturak, frogagiriak edo agiriak gorde beharra ez betetzeagatiko arau haustea) ez da erantzukizunik izango, baldin eta arau hausleari Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195 - 201 bitarteko artikuluetan ezarritako arau hausteetako batengatik zehapena ezarri behar bazaio ez-betetzeari dagozkion eragiketak direla eta.

20. artikulua. Zerga Administrazioaren jarduketari jarraitzeagatiko, oztopatzeagatiko, aitzakiak jarraitzeagatiko edo ezetza emateagatiko arau haustea.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 208. artikuluko 3. idatz zatiko a), b) eta c) letretan ezarritako isunak ezin dira pilatu; aitzitik, zehapen bat bakarrik ezarri behar da, errekerimendu bakoitzari zenbat aldiz ez zaion egin kasu kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa foru arau horretako 208. artikuluko 4. idatz zatiko a), b) eta c) letretan ezarritako isunei ere aplikatuko zaie.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 208. artikuluko 4. idatz zatiko c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, informazioa eskatzen den eragiketen zenbatekoaren berri edukiz gero, ondoko erregelak aplikatuko dira:

a) 4. idatz zatiko c) letretako lehenengo paragrafoan ezarritako kasuan, informazioa eman ez den eragiketen zenbatekoa errekerimenduan aipatutako eragiketen zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere negozioen zenbatekoaren % 0,5, 1, 1,5 edo 2, hurrenez hurren (gutxienez 10.000 euro eta gehienez 400.000 euro).

Letra honetan aipatutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren % 10 edo gutxiago bada, edo hura kalkulaterik ez badago, 10.000 euroko isuna ezarriko da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran zehaztutako arau haustea behin eta berriro gertatuz gero, zehapena honela kalkulatu da: informazioa eman ez den eragiketen zenbatekoa errekerimenduan aipatutako eragiketa guztien zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere negozioen zenbatekoaren % 0,75, 1,25, 1,75 edo 2, hurrenez hurren. Letra honetan aipatutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren % 10 edo gutxiago bada, 20.000 euroko isuna ezarriko da.

Letra honetan bildutako erregelak aplikatuta 400.000 eurotik gorako zehapena sortzen bada, zehapenaren zenbatekoa kopuru horretara murriztuko da.

- b) 4. idatz zatiko c) letrako hirugarren paragrafoan ezarritako kasuan, informazioa eman ez den eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere negozioen zenbatekoaren % 1, 1,5, 2 edo 3, hurrenez hurren (gutxienez 15.000 euro eta gehienez 600.000 euro).

Letra honetan aipatutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren % 10 edo gutxiago bada, edo hura kalkulaterik ez badago, 15.000 euroko isuna ezarriko da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran zehaztutako arau haustea behin eta berriro gertatuz gero, zehapena honela kalkulatu da: informazioa eman ez den eragiketen zenbatekoa errekerimenduan aipatutako eragiketa guztien zenbatekoaren % 10, 25, 50 edo 75 baino gehiago bada, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere negozioen zenbatekoaren % 1,5, 2, 2,5 edo 3, hurrenez hurren. Letra honetan aipatutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren % 10 edo gutxiago bada, 30.000 euroko isuna ezarriko da.

Letra honetan bildutako erregelak aplikatuta 600.000 eurotik gorako zehapena sortzen bada, zehapenaren zenbatekoa kopuru horretara murriztuko da.

21. artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreraren ziurtagiria ez aurkezteagatiko eta zerga bakoitzaren arautegian ezartzen diren beste betebeharrak batzuk ez betetzeagatiko arau haustea.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 211. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, arau haustea gertatuko da atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten zergapekoek atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errenten hartzaileei beraienez egin beharreko ziurtagiria ematen ez badiete atxikipena edo konturako eragiten duen zergaren aitortpenak, autolikidazioak edo itzulketa eskabideak aurkezteko epealdiak amaitu baino lehen, eta eman ere zergari buruzko araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

Halaber, arau hauste hau gertatuko da zergari buruzko araudian autolikidazioak, aitortpenak eta berriemateak Zerga Administrazioari baliabide telematikoen bitartez aurkezteko beharra ezarri eta zergapekoak beste bide batez aurkezten baditu.

III. TITULUA

DIRUZKOAK EZ BESTE ZEHAPEN BATZUK

22. artikulua. Zergen arloko arau hausteen zehapenak, diruzkoak ez bestelakoak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 190. artikuluko 1. eta 2 idatz zatietan aipatzen diren diruzkoak ez bestelako zehapenen funtsa zergaren batean salbuespenak, txikipenak, kenkariak, hobariak edo erreguzko beste zerga onura zein pizgarri batzuk aplikatzeko eskubidea galtzea izan daiteke; salbuespenak izango dira:

- a) Zeharkako zergetan xedatutakoak, ondasun edo zerbitzuen eskuratzaleei nahitaez jasanarazi beharrekoak.
- b) Barne antolamendua osatzen duten nazioarteko hitzarmen edo itunbeen ondoriozkoak.
- c) Nazioarteko elkarrekikotasun printzipioaren aplikazioa dela bide ematen direnak.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 190. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, baldin eta ezarritako isuna 30.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, diruzkoa ez bestelako zehapena, hain zuzen ere dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera eta erreguzko zerga onurak eta pizgarriak aplikatzeko eskubidea galtzea edo zehapena ezarri duen herri administrazioarekin kontratuak egiteko debekua ezartzea, aldi jakin baterako ezarriko da, eta aldia ondoko irizpideen arabera finkatuko da:

- a) Urtebete, baldin eta aurreko manuan zehapena mailakatzeko jasotzen diren irizpideak aplikatuta zehapenaren ehunekoa gutxienez 40 puntu portzental gehitzen bada.
- b) Hemezortzi hilabete, baldin eta aurreko manuan zehapena mailakatzeko jasotzen diren irizpideak aplikatuta zehapenaren ehunekoa gutxienez 60 puntu portzental gehitzen bada.
- c) Bi urte, baldin eta aurreko manuan zehapena mailakatzeko jasotzen diren irizpideak aplikatuta zehapenaren ehunekoa gutxienez 90 puntu portzental gehitzen bada.

23. artikulua. Diruzkoak ez beste zehapen batzuk ezartzeko prozedurak izapidetzeko espezialitateak.

1. Zergen arloko arau hauste batengatik diruzkoa ez beste zehapen bat ezartzea eragin dezakeen gertaera edo inguruabarra egiaztatzen bada, zehapen prozedura abiaraziko da, eta hura izapidetzeko eta ebazteko artikuluko honetan xedatutakoa aplikatuko da, edo, bestela, araudi honetako gainerako artikuluetan xedatutakoa. Nolanahi ere, aintzat hartuko da zerga bakoitzaren arautegian diruzkoak ez bestelako zehapenez ezarritakoa.

Diruzkoak ez bestelako zehapenak ezartzeko prozeduraren izapidetzean ezin dira eztabaidatu diru zehapena ezartzeko ebazpenaren elementuak.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, diru zehapena ezarri duen organoak edukiko du diruzkoa ez bestelako zehapena ezartzeko prozedura abiarazteko eskumena.

Horretarako, egindako eginbidearen edo aktaren eta gainerako aurrekarien kopia erantsi behar zaio espedienteari.

Diruzkoa ez bestelako zehapena ezartzeko eskumena Diputatuen Kontseiluak badauka, zehapen prozedura abiarazteko eskumena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak edukiko du.

3. Hala gertatzen denean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 214. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen den sei hileko epealdia diru zehapena ezartzen duen administrazio egintza jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuko da.

IV. TITULUA

ZEHAPEN PROZEDURA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

24. artikulua. Zergen arloko zehapenak ezartzeko prozedura.

1. Oro har, zergen arloko zehapenak ezartzeko prozedura zergak aplikatzeko prozeduratik bereiziko da.

2. Hala ere, pertsona batek uko egiten badio zehapen prozedura bereiz izapidetzeari, edo adostasun akta sinatzen badu, arau haustea zergak aplikatzeko prozeduran bertan aztertuko dira. Aldiz, pertsona batek zerga erregularizazioarekin ados dagoela adierazten badu baina zehapen proposamenarekin ez, bi prozedurak ezin izango dira bateratu.

II. KAPITULUA

ZEHAPEN PROZEDURA BEREIZ IZAPIDETZEA

25. artikulua. Zehapen prozedura abiaraztea.

1. Prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak erabakia jakinarazita; jakinarazpenean ondoko datuak agertu behar dira nahitaez:

- a) Ustez erantzule den pertsona edo erakundearen identifikazioa.
- b) Prozedura eragin duen jokabidea eta ezar daitezkeen zehapenak, bai eta aplikatu daitezkeen mailakatze irizpideak ere, instrukzioaren ondoriozkoa eragotzi gabe.

- c) Zehapena ezartzeko eskumena daukan organoa eta instruktorearen identifikazioa.
 - d) Prozeduran alegazioak aurkezteko eta entzunaldia izateko eskubidearen aipamena, eta eskubide hori noiz eta zein epealditan balia daitekeen.
- 2.** Zehapen prozedurari ekiteko eskumena araudi honetan edo zehapen eskumena duten organoei buruzko arautegian ezartzen denak edukiko du. Berariaz ezarri ezean, prozedura ebazteko eskumena daukan organoak edukiko du.
- 3.** Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:
- a) Zehapen prozedura egiaztapen eta ikerketa prozedura baten ondorioz hasten bada, araudi honetako 29. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.
 - b) Ikuskatze jarduketei jarkitzeagatiko, oztopatzeagatiko, aitzakiak jartzeagatiko edo ezetza emateagatiko arau haustea (Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 208. artikulua) dela eta, aurreko a) letran ezarritako prozedurakoak ez diren ikuskatze jarduketetan, zehapen prozedura abiarazteko eskumena arau hausteak eragindako jarduketak egin dituen unitateko burutzak edukiko du. Kontuan eduki behar da jarduketa horien ondorioz beste ikuskatze organo batzuek beste zehapen prozedura batzuk abiaraz ditzaketela.
- 4.** Egindako likidazio edo likidazio proposamen bakoitzeko zehapen prozedura bat hasiko da. Horrez gainera, ikuskatze prozeduran zergen arloko arau hauste diren jokabideak, likidazioa eragiten ez dutenak, agerrarazten badira, haien zioz beste zehapen prozedura batzuk abiarazi beharko dira.

Hala ere, arau hauste batzuk arrazoi edo inguruabar berberak eragin badituzte, prozedura guztien hasiera eta instrukzioa batean bildu ahal izango dira, baina bakoitzak bere ebazpena beharko du.

26. artikulua. Zehapen prozedura instruitzea.

- 1.** Zehapena merezi duen arau hausterik gertatu denez zehazteko jarduketak ofizioz egingo dira.
- 2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, zehapen espedienteari hura ebazteko behar diren frogak, aitopen eta txosten guztiak erantsiko zaizkio.
- 3.** Pertsona eta erakunde interesdunek nahi dituzten alegazioak, agiriak, frogagiriak eta probak aurkez ditzakete ebazpen proposamena jaso aurretik.
- 4.** Jarduketak amaitutakoan ebazpen proposamena egingo da. Gero pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio, eta 15 eguneko epealdia emango zaio, aurreko idatz zatian ezarritakoa eragotzi gabe, espedientea agerrarazteko, nahi duen guztia alegatzeko eta nahi dituen agiri, frogagiri eta proba guztiak aurkezteko.

Alegaziorik aurkeztu ezean, ebazpena proposamena organo eskudunari bidaliko zaio, ebatz dezan.

Alegaziorik aurkezten bada, haien araberrako ebazpen proposamena bidaliko zaio zehapena ezartzeko eskumena daukan organoari, eta horrekin batera espedienteari erantsitako dokumentazioa ere bai.

27. artikulua. Zehapen prozedura ebaztea.

1. Organo eskudunak, prozeduraren instrukzioan egindako proposamena eta espedienteari erantsitako agiriak, probak eta alegazioak aztertuta, ebazpena emango du, arrazoiak adierazita. Hala ere, ebazpena eman baino lehen, jarduketa gehiago egiteko agindua eman dezake. Hala eginez gero, jarduketa guztiak amaitu eta gero ebazpen proposamen berria egin beharko da, eta horri aurreko artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko zaio.

Ebazpenean espedientean jasotzen diren gertaerak soilik hartuko dira kontuan, hain zuzen ere prozeduran zehar zehaztutakoak edo aldez aurretik egiaztatu ondoren prozedurara ekarri direnak.

2. Zehapena ezartzeko eskumena daukan organoak, hurrengo paragrafoan zehazten diren inguruabarretako bat gertatu dela eta, ebazpen proposamena aldatzen badu, aldaketaren berri emango zaio interesdunari, eta honek nahi dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 10 eguneko epealdian, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Hauexek dira aurreko paragrafoan aipatu inguruabarrak:

- a) Zehagarritzat jotzea zehapen prozeduran halakotzat jo ez den jokabideren bat.
- b) Jokabide zehagarrien tipifikazioa aldatzea.
- c) Zehapena mailakatzeko kontuan hartzen diren inguruabarrei buruzko iritzia aldatzea.

3. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie. Jakinarazpenean, gainera, ondokoak ere aipatu behar dira:

- a) Erabil daitezkeen aurkarabideak, horretarako epealdiak eta zein organori aurkeztu behar zaizkion.
- b) Zehapenaren zenbatekoa non, noiz eta nola ordaindu behar den.
- c) Zein kasutan eska daitezkeen zehapenean aplikatutako txikipenen zenbatekoak.
- d) Zehapenaren betearazpena eteten bada garaiz eta behar bezala administrazio errekurtsua edo erreklamazioa jartzeagatik, ez dela berandutze korriturik eskatuko adierazi behar da.
- e) Ebazpena administrazioarekiko auzibidean aurkaratu ahal bada, hauxe adierazi behar da: eteteko eskatuz gero, zehapenak indarrean jarraituko duela epai organoak eskaeraren gaineko epaia eman arte, baldin eta interesdunak araudi honetako 30. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako betekizunak betetzen baditu.

4. Zehapen prozedura ebazteko gehieneko epealdia, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 217. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoa, 185. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik etengo da.

Gainera, prozeduraren etenaldi justifikatuak eta interesdunei egozten zaizkien luzapenak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Zergen Ikuskatzearen Araudian ezarritakoarekin bat etorritik zehaztuko direnak, ez dira zenbatuko prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epealdian.

5. Zehapen prozedura ebazteko egintza emateko eskumena zein organok daukan Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 217. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

28. artikulua. Prozedura laburtua.

Kapitulu honetan xedatutakoa gorabehera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 216. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean, zehapen prozedura artikulua horretan ezarri den bezala izapidetuko da eta bertan ezarritako ondorioak sortuko ditu.

29. artikulua. Ikuskatze prozeduretako baten ondorioz hasitako zehapen prozedurak bereiz izapidetzen direnean aplikatu beharreko erregela bereziak.

1. Zehapen prozedura abiarazteko eskumena arau hausteak eragindako jarduketak egin dituen unitateko burutzak edukiko du.

Prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak erabakia eman ondoren, bere ekimenez, Ikuskatze Zerbitzuko buruak aginduta zein beste organoren batek eskaera arrazoitua aurkeztuta. Organo eskudunak noiznahi har dezake erabakia ikuskatze prozeduran zehar, bai eta hura amaitu ondoren ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 214. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako gehieneko epealdiaren barruan.

2. Ikuskatze akta bakoitzeko zehapen prozedura bat abiaraziko da. Gainera, ikuskatze prozeduran zergen arloko arau hauste diren jokabideak agertzen badira, likidazioa eragiten ez dutenak, haien zioz ere zehapen prozedurak abiaraz daitezke.

Hala ere, arau hauste batzuk arrazoi edo inguruabar berberak eragin badituzte, prozedura guztien hasiera eta instrukzioa batean bildu ahal izango dira, baina bakoitzak bere ebazpena beharko du.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren prozeduretan zehatzen diren arau hausteak behar bezala bereizi behar dira.

3. Ikuskatze Zerbitzuak zehapen prozedura abiarazteko eskumena daukanari ez beste unitate bati agindu diezaioke prozeduraren instrukzioa, Zerbitzuaren beharrianak edo kasuaren inguruabarrak kontuan harturik.

4. Alegazioen izapidean, interesdunak berariaz adieraz dezake aurkeztu zaion ebazpen proposamenarekin ados dagoela, edo ez dagoela.

Adostasunak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan ezarritako ondorioak sortitzaan, nahitaez jaso behar du ikuskatze prozeduraren ondoriozko erregularizazio proposamena.

5. Pertsona interesdunak zehapen proposamenarekin ados dagoela adierazten badu, zehapena ezartzeko eskumena daukan organoak ebazpen arrazoitua emango du. Nolanahi ere, ebazpena eman baino lehen jarduketa gehiago egiteko agindua eman dezake.

6. Pertsona edo erakunde interesdunak zehapen proposamenarekin ados dagoela adierazten badu, uko egiten badio berariaz alegazioak aurkezteko epealdiari edo epealdi horretan alegaziorik aurkeztu ez badu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 216. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da, zehapena ezartzeko eskumena daukan

organoak hilabete igaro baino lehen (artikulu horretan ezarritako epealdia) ondokoetako bat egin ezean: proposamenean aurkitutako akatsak zuzentzen dituen erabakia jakinarazi; jarduketak prozeduraren gehieneko iraupenaldian betetzeko agindu; zehapen proposamena berresten duen ebazpena eman; proposamena zuzendu, oker dagoela iritzita. Aipatu jakinarazpena zehapen proposamena jakinarazten denetik hilabete pasatu eta gero egiten bada, jarduketak ez du inolako ondoriozik sortuko pertsona edo erakunde interesdunarentzat.

Baldin eta zehapena ezartzeko eskumena daukan organoak proposamena zuzentzen badu, proposamen berria aurrean adierazitako epealdian jakinarazi behar zaio, hau da, hilabete pasatu baino lehen. Jakinarazpenean interesdunari azaldu behar zaio nahi dituen alegazioak aurkez ditzakeela 15 eguneko epealdian, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu honetan ere aurreko paragrafoan proposamena zuzentzeko erabakiarekiko adostasunaren, alegazioak ez aurkeztearen eta alegazioak aurkezteko epealdiari uko egitearen ondorioez xedatutakoa aplikatuko da.

7. Zehapen prozedura ebazteko egintza emateko eskumena zein organok daukan Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 217. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

V. TITULUA

ZEHAPENAK BETEARAZTEA

30. artikulua. Zehapenen betearazpenaren etendura.

1. Garaiz eta forman administrazio errekurtsua edo erreklamazioa jartzen bada, organo eskudunek automatikoki etengo dute zehapenen betearazpena (diruzkoena zein bestelakoena); interesdunek ez dute etendura eskatu beharko.

2. Zehapena administrazio bidean irmoa izanez gero, premiamendu prozedurako jarduketak ez dira hasiko harik eta administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko epealdia amaitu arte.

Epealdi horretan interesdunak errekurtsua jarri duela adierazten badu eta bertan betearazpena eteteko eskatzen badu, etendura indarrean egongo da harik eta organo judizialak hari buruzko erabakia hartu arte.

3. Artikulu honetan xedatutakoa behar bezala aplikatzeko, errekurtsuak eta erreklamazioak izapidetzeko eskumena daukaten administrazio organoek 10 eguneko epealdian jakinaraziko dizkiete kasu bakoitzeko erabakiak eta intzidentziak zehapenak betearazteko eskumena daukaten organoei.

VI. TITULUA

ZERGA ZEHAPENAK BARKATZEA

31. artikulua. Zerga zehapenak barkatzeko eskaera.

1. Zerga zehapen irmoak graziaz barkatzeko eska daiteke. Barkamena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak eman dezake bere nahierara; barkamenak zehapen osoa edo zati bat har dezake.

2. Ezarritako zehapen baten betearazpenak modu larrian eragozten badu industriaren nahiz ekonomiaren sektore baten ekoizpen ahalmena eta enplegu kopurua mantentzea, edo kalte handia egiten badie herritar guztien interesei, aurretik Ogasun zuzendariak barkamen eskaerari buruzko txostena eman behar du.

32. artikulua. Eskaera aurkezteko epealdia.

Zehapena barkatzeko eskaera zerga zehapena ezarri duen egintza irmo bihurtzen denetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da.

Hala ere, eskaera zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu baino lehen aurkeztean bada, izapidetzea administrazio egintza hori jakinarazten denetik hilabete pasatu arte etengo da, eskabidea behar den epealdiaren barruan aurkeztutzat jota.

Epealdi horretan zehapena ezarri duen administrazio egintzaren kontrako errekurtsioa edo erreklamazioa aurkezten bada, zehapena barkatzeko eskaera onartezintzat joko da. Nolanahi ere, errekurtsioa edo erreklamazioa ebatzi ondoren berriz ere aurkeztu ahal izango da barkamen eskaera.

33. artikulua. Eskabidearen betekizunak.

1. Eskabidea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari bidali behar zaio, eta ondoko datu hauek jaso behar ditu gutxienez:

- a) Eskatzailearen eta, behar denean, beraren ordezkariaren izen-deiturak, edo sozietate izena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta jakinarazpenetarako helbidea.
- b) Barkatzeko eskatzen den zerga zehapena; irmoa dela adierazi behar da eta haren inguruko gertaerak, arrazoiak eta erreguak azaldu behar dira.
- c) Tokia, data eta eskatzailearen sinadura, edo ordezkariarena.
- d) Araudi honetako 31. artikuluko 2. idatz zatian azaldutako kasuetan, aurrekoiez gainera idatz zati horretan ezarritako inguruabarrak frogatzen dituen memoria xehekatua ere aurkeztu behar da.

2. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia eta, beharrezkoa izanez gero, ordezkariarena ere bai.

Eskatzailearen ordezkari Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik frogatu behar da.

34. artikulua. Izapidetzea.

Zehapen bat barkatzeko eskabidea hura ezarri duen organoak berak izapidetu behar du.

Zehapena barkatzeko eskabidean araudi honetako 31. artikuluko 2. idatz zatian azaltzen diren inguruabarrei helden bazaie, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak Ogasun zuzendariari bidaliko dio espediente, bidezko txostena egin dezan.

Beharrezkotzat joz gero, txostenak eskatzeko izapidea, probak egiteko izapidea eta interesdunaren entzunaldiaren izapidea Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko III. tituluko II. kapituluaren ezarritako arau orokorrekin bat etorritik egingo dira.

35. artikulua. Zehapenaren betearazpenaren etendura.

1. Zehapen baten betearazpena automatikoki etengo da interesdunak eskatu eta, ondoko idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorritik, behar bezalako bermea aurkeztuz gero.

2. Eskatzaileak etendura lortzeko aurkeztu beharreko bermea Foru Ogasunean gordailatu behar da. Aurkez daitezkeen bermeak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 222. artikuluko 2. idatz zatian finkatu dira.

3. Bermeak zehapenaren zenbatekoa eta prozedura azkentzen duen ebazpena eman arteko berandutze korrituak hartu behar ditu, eta sortzen diren errekarguak ere bai.

4. Etendura eskabidea aurkeztu denean erabakitza hartuko da, baldin eta behar bezalako bermea aurkeztu bada aurreko 2. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

Bermea onartzen ez bada, konpon daitezkeen akatsen bat daukala eta, zehapenaren betearazpena behin-behinean eteteko erabaki ahal izango da, hain zuzen ere akatsaren edo errorearen zuzenketa izapidetu arte. Emandako epealdian akatsa edo errorea zuzenduz gero, etendura behin betikoa izango da. Bestela, behin-behineko etendura kenduko da.

5. Halaber, zehapenak geroratzeko edo zatikatzeko eska daiteke Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 64. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

36. artikulua. Ebazpena.

1. Zerga zehapenak barkatzeko eskabideen espedienteak izapidetzeko prozedurak sei hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira, eskabidea aurkeztu den egunetik aurrera. Epealdi horretan ebazpenik ematen ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu behar da. Hala ere, eskabidea zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu baino lehen aurkeztu bada, aurrean aipatutako epealdia administrazio egintza irmo bihurtu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.

2. Espedientearen ebazpena pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren ondorioz etendura kendu bada, berariaz adieraziko zaio jakinarazpenean.

3. Ebazpenak barkamena ukatzen bada, zehapena ordaintzeko epealdia amaitu denetik sortutako berandutze korrituak likidatuko dira, bai eta errekargua ere, bidezkoa izanez gero.

Ebazpenak zehapena barkatuz gero, oso-osorik zein zati bat, eta zenbatekoa ordainduta badago, Zerga Administrazioak sartutakoa itzuliko du, dena zein zati bat, ebazpenaren arabera, ebazpena ematen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen. Barkatutako zenbatekoak ez du berandutze korriturik sortuko.

Barkatu ez den zenbatekoaren berandutze korrituak ebazpena eman den egunera arte likidatuko dira.

4. Zerga zehapena barkatzeko prozedura azkentzen duen ebazpenaren kontra ezin izango da errekurtsorik ez erreklamaziorik jarri.

VII. TITULUA

OGASUN PUBLIKOAREN AURKAKO DELITUAK

37. artikulua. Ogasun Publikoaren aurkako delitua egin delako zantzuak dituzten espedienteen izapidetzea.

1. Zerga Administrazioak uste badu zergapeko baten jokabidea Zigor Kodeko 305. artikuluan tipifikatutako delitua izan daitekeela, ezin jarraitu izango du administrazio prozedurarekin: eten egin beharko du eta artikulua honetan ezarritakoa egin beharko du.

Gauza bera gertatuko da administrazio prozedurarekin Zerga Administrazioak gertaera batzuk direla eta zigor prozedura egiten ari dela jakinez gero.

2. Aurreko idatz zatian aipatutakoa gertatzen bada, administrazio unitate jarduleak egindako jarduketak (zigor erantzukizuna sortzen duten gertaerak eta inguruabarrak jasotzen dituzten eginbideekin) eta gertaerak delitu direnez argitzen duen txostena bidali behar dizkio zerga prozedura izapidetzen ari den zerbitzuko buruari.

Aurrekoa zehapen prozedura izapidetzean ari dela gertatzen bada eta ordurako likidazio egintzak eman badira, prozedura instruitzen ari den administrazio unitateak izapidetzea etengo du eta egiaztapen jarduketan eta zehapen prozedurakoan berri emango dio zehapena ezartzeko eskumena daukan zerbitzuko buruari, eta bidezko txostena ere bidaliko dio. Gainera, likidazioaren betearazpena etengo da ebazpen judiziala eman arte.

3. Dokumentazioa aurkeztuta, zerbitzu eskuduneko buruak beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izango ditu edo espedientea bidali dionari itzultzeko erabaki ahal izango du, administrazio bidean amaitu edo osatu dezan, kasuan kasukoa ustezko delituaz uste duenaren arabera. Izapide hori egin ondoren zerbitzu eskuduneko buruak Ogasun zuzendariari bidaliko dio espedientea.

4. Dokumentazioa jasotakoan, Ogasun zuzendariak ondoko ebazpenetako bat emango du, delituaz uste duenaren arabera: delitua gertatu dela uste badu, espedientea jurisdikzio eskudunera edo fiskaltzara bidaltzea; deliturik ez dela egin uste badu, organo jarduleari itzultzea.

5. Zigor prozesua amaitu edo fiskaltzak espedientea itzuli ondoren Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 185. artikuluko 1. idatz zatian eta zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuko da.

Deliturik ez dela izan uste bada, Zerga Administrazioak egiaztapen prozedurarekin jarraituko du eta, auzitegiek frogatutzat eman dituzten gertaerak kontuan harturik, zehapen prozedura abiaraziko du edo abiarazitakoarekin jarraituko du.

6. Zerga Administrazioak uste badu egindako arau haustea delitua izan daitekeela Zigor Kodeko 310. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko idatz zatietan ezarritakoa egingo da. Nolanahi ere, bidezko likidazio egintzak eman ahal izango dira; ezin abiarazi izango da gertaera beraiengatik zehapena ezartzeko prozedurarik, ez abiarazitakoarekin jarraitu, eta gertaerak ezin hartu izango dira kontuan arau haustea mailakatzeko.

Idatz zati honetan azaldutako kasuetan deliturik ez dela izan uste bada, Zerga Administrazioak zehapen prozedura abiaraziko du edo abiarazitakoarekin jarraituko du, kasuan kasukoa auzitegiek frogatutzat eman dituzten gertaerak kontuan harturik.

7. Baldin eta Zerga Administrazioak uste badu antzemandako gertaeretan Zigor Kodeko 306 - 309 bitarteko artikuluetan ezarritako delituetako bat egin delako zantzuak daudela, gertaerak eta inguruabarrak jaso behar ditu eginbide batean eta haien berri eman administrazio organo eskudunari, bidezko egiaztapena egin dezan. Hala ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egiaztatu beharreko dirulaguntzen kasuan aurreko 1 - 5 bitarteko idatz zatietan xedatutakoa egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin lotutako arau berezia.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 170. artikuluko 2. idatz zatiko 4. zenbakian ezarritako arau haustea gertatzen denean, ez da ezarriko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 195, 197, 198 edo 199. artikuluetan autolikidazioan kopuru jakin batzuk ez kontsignatzeagatik ezarritako arau hausteari dagokion zehapena, baizik eta aipatutako araugintzako foru dekretuan ezarritako arau hausteari dagokiona.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Izapidetzeko prozedurak.

Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako zehapen prozeduretan orduan indarrean izan den araudia aplikatuko da prozedura amaitu arte, ondokoetan ezarritako arauekin bat etorritik: Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 108. eta 109. artikuluetan azaltzen diren aitorpenak edo zerrendak ez aurkezteagatik arau hauste soilengatik zehapenak ezartzea arautu duen martxoaren 25eko 28/1997 Foru Dekretua eta, bidezkoa denean, Arabako Lurralde Historikoko Zergen Ikuskatzearen Araudia, ekainaren 6ko 41/2006 Foru Dekretuak onartu duena.

Bigarrena. Zergen arloko zehapen araubide berria atzeraeraginarekin aplikatzea.

1. Araudi honetan xedatutakoa Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri baino lehen egindako zergen arloko arau hausteei aplikatuko zaie, baldin eta arau hauslearen onurarako bada eta ezarritako zehapena irmoa ez bada aipatu foru arauko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

Araudi honetan xedatutakoa Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren eta araudi hau indarrean jarri baino lehen egindako zergen arloko arau hausteei ere aplikatuko zaie, baldin eta arau hauslearen onurarako bada eta ezarritako zehapena irmoa ez bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, araudi honetako I, III, IV, V eta VII. tituluetan ezarritako prozedura arauak indarrean jarri ondoren hasitako zehapen prozedurei zein Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren hasi eta Araudia jarri denean amaitu gabe egon direnei aplikatuko zaizkie, zehapen araubidea kontuan eduki gabe.

2. Araubiderik onuragarriena zein den zehazteko zehapenaren azken zenbatekoa hartuko da kontuan, bidezkoa denean Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan ezarritakoaren arabera murrizpena, adostasunagatikoa, aplikatu ondoren.

Hirugarrena. Zergen arloko arauak behin eta berriro haustearen ziozko mailakatzeko irizpidearen aplikazio iragankorra.

1. Zergen arloko arauak behin eta berriro hausteagatik mailakatzeko irizpidea aplikatzeko, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean (Biltzar Nagusiek maiatzaren 31ko erabaki baten bidez onartua) xedatutako zehapen araubidea aplikatuta ezarri eta administrazio bidean irmo diren zehapenen kasuan, aurrekarizat hartuko da arau hausleari lehenago izaera bereko beste arau hauste batengatik zehapena ezarri izana.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko (Biltzar Nagusiek maiatzaren 31ko erabaki baten bidez onartua) 79. artikuluko a), b) eta c) letretan ezarritako arau hausteak eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 195, 196 eta 197. artikuluetan ezarritako arau hausteak izaera berekoak dira.

Ondorio berorietarako, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko (Biltzar Nagusiek maiatzaren 31ko erabaki baten bidez onartua) 78. artikuluko 1. idatz zatiko a) letrean ezarritako arau haustea eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 202 eta 203. artikuluetan ezarritakoa izaera berekoak dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheagoko mailako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

OHARRAK